

## **ERREKTOREA AUKERATZEKO HAUTESKUNDEETAKO GIDALIBURUAREN**

### **3. FASEA: BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA, HAUTESKUNDE MAHAIK ETA BOZKETA**

<b>BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA.....</b>	<b>2</b>
<i>Botoa aldez aurretik emateko jarraibideak .....</i>	<i>2</i>
<b>HAUTESKUNDE MAHAIK .....</b>	<b>2</b>
<i>Hauteskunde mahaietarako zozketak .....</i>	<i>2</i>
<i>Mahaia eratzea eta akta egitea .....</i>	<i>3</i>
<b>BOTAZIOA.....</b>	<b>3</b>
<i>Botoa emateko ordutegia.....</i>	<i>3</i>
<i>Zenbat denbora izango dute hautesleek botoa ematera joateko.....</i>	<i>3</i>
<i>Zer egin behar dute mahaiko kideek .....</i>	<i>3</i>
<i>Botoak zenbatzeko prozedura.....</i>	<i>4</i>
<i>Boto zenbaketaren akta.....</i>	<i>5</i>
<i>Akten jatorrizko alea.....</i>	<i>5</i>
<i>Boto txartelak suntsitzea .....</i>	<i>5</i>
<i>Emaitzak argitaratzea .....</i>	<i>5</i>

## BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA

**Azaroaren 9tik 23ra arte (astelehena)**, biak barne, botoa alde zuzenetik emateko aukera egongo da. Epe hauen berri emango da iragarki oholetan eta ikastegiko euskarri elektronikoetan.

Hauteskunde Batzorde Nagusiak, azaroaren 4an egindako bileran, hauteskunde mahaia eratzeko irizpideak onartu zituen (**I. eranskina**).

Aldez aurretik botoa emateko aukerak botoa ematea ahalbidetzen du ikasleari, kasuan kasuko ikastegian bertan, eta langileei langunean bertan (AZP eta IIP).

Errektorea aukeratzeko hauteskundeei buruzko arautegian jasotakoari jarraituz, ikastegiko zuzendariaren edo campuseko errektoreordearen aurrean (edo honek ahalbidetzen duen aurrean) eman behar da alde zuzenetik botoa. Aldez aurretik botoa, ikastegiko idazkari akademikoa, campuseko idazkaria, ataletako koordinatzailea (Medikuntza eta Erizaintzako unitateak barne) edo ahalbidetzen denaren aurrean egingo da. Noren aurrean egingo den, lekua eta ordutegia argitaratuta egon beharko dira ikastegi bakoitzean eta campusetan.

### Botoa alde zuzenetik emateko jarraibideak

Ikastegi guztietara bidaliko dira botoa emateko gutun azalak eta boto txartelen pdf-a, inprimatu ahal izateko eta botoa alde zuzenetik eman ahal izateko. Papeleta guztiak zuriak dira.

Botoa alde zuzenetik emateko, boto txartel ofiziala gutun azal ofizial itxian sartuko da, eta gutun azal itxi hori, NANaren, pasaportearen, gidatzeko baimenaren edo unibertsitateko txartelaren fotokopiarekin batera, beste gutun azal batean sartuko da (identifikazio dokumentua indarrean egon behar da). Gutun azal hori mahaiko buruari zuzenduta egongo da, kanpoaldean boto emailearen izen-abizenak eta taldea izango ditu adierazita, eta boto emaileak hegalean sinatu ondoren zinta itsasgarriaz itxiko da.

Boto emaileak hala eskatuz gero, botoa eman izanaren ziurtagiria emango zaio, honi erantsitako ereduari jarraituz egina.

Behin botazioa amaituta, horrela emandako botoak boto kutxan sartuko dira, boto emailea erroldan dagoela egiaztatu ondoren. Hala ere, botoa alde zuzenetik eman arren hautesleak berriro eman badu botoa hauteskunde egunean, edo hautesle izateko eskubidea galdu badu, alde zuzenetik emandako botoa baliorik gabe geratuko da eta ez da kutxan sartuko.

Hautesleak berak eman behar du alde zuzenetik botoa.

## HAUTESKUNDE MAHAIK

### Hauteskunde mahaietarako zozketak

Barrutiko hauteskunde batzordeek zozketa egin dute bozketa egunean hauteskunde mahaia osatuko dituzten kideak aukeratzeko.

UPV/EHUko hauteskundeetan, hauteskunde mahaietarako zozketan kide titularrak eta ordezkariak aukeratzeko dira, bi txanda antolatuz (goizekoa eta arratsaldekoa) eta ahalik eta gutxien eragozteko eguneko ohiko jarduna (ikasleek ez dezaten eskolarik galdu eta irakasleek ez dezaten eman gabe utzi

eskola ordurik, betiere, hori posible den heinean).

### **Mahaia eratzea eta akta egitea**

Bozketa baino ordu erdi lehenago (**hau da, 08:30etan**), hauteskunde mahaia osatu behar da eta mahaia osatzearen akta bete, honi erantsitako ereduari jarraituz. Mahai eratzeko unean, bertan egon behar dira titularrak eta ordezkioak, guztien artean adosteko zelan antolatuko dituzten txandak.

Boto emaile bakoitzak bere boto txartela inprimatu dezake paper zurian, hala eta guztiz, hauteskunde mahaia bakoitzean boto txartelak egongo dira.

Boto txartelak gutun azalean sartu behar dira.

Hauteskunde mahaia goizeko 9:00etan irekiko dira, eta mahaiko hautesleen zerrenda izan beharko dute eskura.

Mahai eratzean osatu beharreko akta goitzeko txandako mahaikide guztiek sinatu eta posta elektronikoz bidali beharko da ondoko helbidera:

[idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus](mailto:idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus)

## **BOTEA EMATEKO PROZEDURA**

### **Botoa emateko ordutegia**

Hauteskunde mahaia **9:00etatik 13:00etara** lehenengo txandan, eta **13:30etatik, 17:00etara** irekita egongo dira. Lehenengo eta bigarren txanden artean gelak aireztatu eta garbituko dira prebentzio zerbitzuak hala gomenatuta.

### **Zenbat denbora izango duten hautesleek botoa ematera joateko**

Behar beste. II. Eranskinean AZPkoek duten ordutegia zehazten da.

Ikasleei dagokienez, **azaroaren 26an**, 10 minutuko tartea izango dute eskolen artean (eskola bakoitzaren 10 minutu hartuta). Modu horretara boto emaileak ez dira pilatuko, eta ez zaio traba handiegirik egingo jardun akademikoari.

### **Zer egin behar duten mahaiko kideek**

**Botazioa hasita**, mahaiko buruak egiaztatuko du boto emaile bakoitzaren nortasuna eta begiratuko du ea erroldan dagoen.

Hautesleak beren burua identifikatu beharko du botoa emateko, eta honako agiriren bat erabili ahal izango du: UPV/EHUko kide dela egiaztatzen duen txartela, NANA, pasaporte edo gidatzeko baimena.

Mahaikide batek erroldak markatuko ditu, eta beste batek boto emaile bakoitzaren izena idatziko du zerrenda zenbakidun batean. Horrela, botoak kontatzean zalantzarik sortuko balitz botoa eman dutenen kopuruaz, zerrenda hori egiaztabide izango litzateke.

Mahaiak behin egiaztatuta boto emailearen nortasuna eta behin ziurtatuta erroldan dagoela, boto emaileak boto txartela hautetsontzian sartuko du.

**Txanda aldaketarako unean**, goizeko txandakoak eta arratsaldekoak botazioaren gorabeheren akta betetzen hasiko dira, eta mahaia ixtean bukatuko da. Une horretan, botoa eman ahalko dute goizeko txandan egon diren mahaikideek.

Goizeko txandaren eta arratsaldekoaren artean bozkalekuak aireztatu eta garbituko dira.

**Botazioa amaitzeko ordua heltzean** (17:00etan), mahaiburuak botazioa amaitzera doala iragarriko du ozen, eta ez dio inori gehiago gelan sartzen utziko. Dena dela, barruan daudenetako baten batek artean botorik eman ez badu, utzi egingo dio botoa ematen. Ondoren, alde zurretatik emandako botoak sartuko dira kutxan eta arratsaldeko txandako mahaikideek emango dute botoa.

Orduan mahaiko kideek botazioaren gorabeheren aktan jaso beharko dituzte egunean zehar gertatutako gorabeherak, halakorik egon bada. Ezer apartekorik gertatu ezean, ez da atal hori beteko. Mahaiko kideen ustez garrantzitsuak diren bestelako egoerak ere jaso daitezke akta horretan.

### **Botoak zenbatzeko prozedura**

Botazioa amaituta, botoak zenbatuko dira jendaurrean. Lehenengo eta behin, errektorea hautatzeko botazioko txartelak zenbatuko dira. Behin boto guztiak zenbatuta, mahaia erreklamazioak ebatziko ditu.

**BOTOAK MAHAIKO KIDEEK BAINO EZ DITUZTE ZENBATUKO; BERAZ, EZIN IZANGO DITU BESTE INORK UKITU EZ BOTO TXARTELAK EZ BOTO KUTXA.**

Botoak zenbatzen hasi baino lehen, paper guztiak kendu beharko dira mahai gainetik, nahasterik egon ez dadin, eta ziurtatu behar da boto kutxa zeharo hustu dela.

### **Boto baliogabeak eta boto zuriak**

Errektorea aukeratzeko hauteskundeei buruzko arautegiko 17. artikulua Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 8. artikulua aipatzen du, eta horrek, hain zuzen ere, ondokoa dio:

**Boto baliogabeak** izango dira:

- Boto txartel ez ofizialetan emandako botoak edo oharren bat duten txarteletan, edo izenen bat ezabatuta edo aldatuta dutenak.
- Hautagai zerrenda bat baino gehiago adierazita dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean); gutun azalean hautagai desberdinen txartelak edo aukera desberdineko txartelak (hautagai bat eta boto zuria) sartuta dituztenak.
- Gutun azal ez ofizialetan emandako botoak edo gorabeheraren bat dutenak edo txartel ez ofizialak dituzten gutun azaletakoak.
- Boto txartelak ez daukaten gutun azalak.

**Boto zuriak** izango dira:

- a) Txartel ofiziala zuriz daukatena.
- b) Hautagai zerrendarik aukeratuta ez dutenak (zerrenda bat baino gehiago daukaten txartelak direnean).

### **Boto zenbaketaren akta**

Botoak zenbatu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, boto zenbaketaren akta beteko da (eredu arautuari jarraituz), eta arratsaldeko txandan egon diren mahaikide guztiek sinatuko dute.

Aktan jaso beharrekoak dira: talde bakoitzeko hautesle kopurua eta boto emaileak (akta erudian banatuta daude taldeak), txartel balioabeen kopurua eta txartel baliodunak; txartel baliodunen artean berariaz adierazi beharko da zenbat izan diren boto zuriak, eta zenbat hautagai bakoitzak lortutako boto kopurua. Halaber, erreklamazioak, hartutako erabakiak eta gorabeherak ere adierazi beharko dira.

Boto zenbaketa behin amaituta, mahaiko buruak posta elektronikoz berehala bidaliko dizkio emaitzak Hauteskunde Batzorde Nagusiari helbide honetara:

[idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus](mailto:idazkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus)

### **Akten jatorrizko alea**

Akten jatorrizkoak biharamunean (azaroaren 25ean) bidaliko zaizkio Hauteskunde Batzorde Nagusiari bere egoitzara (Idazkaritza Nagusira), hauteskunde mahai guztietakoak hartu ondoren botoak haztatu ditzaten hauteskunde taldeak kontuan hartuta.

### **Boto txartelak suntsitzea**

Emaitzak behin betiko aldarrikatu ondoren, suntsitu egingo dira boto txartelak (ingurugirorako jasagarria den prozeduraren bat erabilita), erreklamazioren bat izan dutenak izan ezik).

### **Emaitzak argitaratzea**

Mahaiek argitara emango dituzte emaitzak aktak sinatu bezain laster. Horretarako, aktak fotokopiatu eta ikastegietako hauteskunde oholetan eskegiko dituzte.

**BOTOA AURRETIK EMATEA**

**(Hauteskunde taldea eta ikastegiaren/atalaren izena sartu)**

**ERREKTOREA AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK- 2020**

**IKASTEGIAN/ATALEAN/ BOTOA AURRETIK EMAN IZANAREN FROGAGIRIA:**

Nik,.....jaun  
ak/andreak,.....  
.....Ikastegiko ..... naizen aldetik, honakoa  
ziurtatzen dut:  
.....jaunak/andreak  
, .....ko langileak,  
aurretik eman du botoa errektorea aukeratzeko hauteskundeetarako, lehen esandako  
ikastegian eta ni neu aurrean nengoela  
.....(e)an.

Izptua.: .....  
E.E.: .....

**CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZAN BOTOA AURRETIK EMAN IZANAREN**

**AGIRIA:**

Nik,.....jaun  
ak/andreak,.....Campuseko administratzailea naizen  
aldetik, ..... honakoa ..... ziurtatzen  
dut:.....jau  
nak/andreak .....ko langileak, aurretik eman duela  
botoa errektorea aukeratzeko hauteskundeetarako, errektoreordetza honetan eta ni  
neu aurrean nengoela, .....(e)an.

Izptua.: .....  
E.E.: IDAZKARI AKADEMIKOA

aman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAIN TASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

<b>HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA</b>							
<b>JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIAK</b>				<b>HEZKUNTZA</b>			
<b>MAHAI 1</b> (mahaiaren zozketa Zentroak burutzen du) 4 URNA				<b>MAHAI 1</b> (mahaiaren zozketa Zentroak burutzen du) 4 URNA			
1 URNA PDI 30	2. URNA IKASLEAK 490+31	3. URNA IIPEDI 9	4. URNA BESTELAKO IIP/OTRO PDI 20	1 URNA PDI 24	2. URNA IKASLEAK 1100	3. URNA IIPEDI 1 errola +3 errolak (pdindp, enpresa Gasteiz y TS) 4+1+2	4. URNA BESTELAKO IIP/OTRO PDI 67





## VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA

### 2 MAHAI

#### 1.MAHAIA 3 URNA

#### 2. MAHAIA URNA 1

1 URNA  
PDI  
48

2. URNA  
IIPEDI  
14

3. URNA  
BESTELAKO  
IIP/OTRO PDI  
48

1. URNA  
IKASLEAK  
923



## FARMAZIA FAKULTATEA

### MAHAI 1

3 URNA (EZ DAGO IIPEDIrik) (NO HAY PDI NO DOCTOR)

1 URNA  
PDI  
96

2. URNA  
IKASLEAK  
1405+38

3. URNA  
BESTELAKO IIP/OTRO PDI  
129



## LETREN FAKULTATEA

### MAHAI 1 4 URNA

1 URNA  
PDI  
152

2. URNA  
IKASLEAK  
2241+97

3. URNA  
BESTELAKO IIP/OTRO PDI  
198

4. URNA  
IIPEDI  
11



**BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA / INGENIERIA DE BILBAO**

Errektorea aukeratzeko Hauteskundeak- Elecciones a Rector/a

<b>1 MESA</b> (el sorteo de la mesa lo hace Centro)	<b>1 MESA</b> <b>PDI Permanente Doctor</b> (el sorteo de la mesa lo hace Centro)	<b>3 MESAS</b> <b>ALUMNOS</b> (el sorteo de las mesas lo hace Centro)
<b>PAS</b> <b>(154)</b>	<b>PDI Permanente Doctor</b> <b>(300)</b>	<b>MESA 1 (Edificio I)</b> <b>(345) + doctor (345+364)+902</b> <b>(2830)</b>
<b>PDI Permanente No Doctor</b> <b>(21)</b>		<b>MESA 2 (Edificio II)</b> <b>(363+364)</b> <b>(1857)</b>
<b>OTRO PDI</b> <b>(354)</b>		<b>MESA 3 (Edificio Portugalete)</b> <b>(350) + doctor (350)</b> <b>(215)</b>



### MESAS FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA

ÁLAVA		DONOSTIA		ELKANO		SARRIKO	
MESA 1 1 Urna	PDI-DP (1 Censo) <b>12</b>	MESA 1 2URNAS	PDI- DP (1 Censo) <b>40</b> Otro PDI (1 Censo) <b>20</b>	MESA 1 4URNAS	PDI-DP (1 Censo) <b>26</b> ALUMNADO (1 Censo) <b>833</b> PDI-NDP (1 Censo) <b>10</b> Otro PDI (1 Censo) <b>21</b>	MESA 1 1 Urna	PDI-DP (1 Censo) <b>178</b>
MESA 2 1 Urna	ALUMNADO (1 Censo ) <b>486</b>	MESA 2 2URNAS	ALUMNADO (1 Censo <b>1004</b> ) PDI -NDP (1 Censo) <b>9</b>			MESA 2 1 Urna	ALUMNADO (2 Censos ) <b>3031+48+15</b>
MESA 3 1 Urna	Otro PDI (1 Censo ) <b>18</b>					MESA 3 3 Urna	PAS (1 Censo) PDI-NDP (1 Censo) <b>16</b> Otro PDI (1 Censo ) <b>67</b>



## ARTE EDERRETAKO FAKULTATEA

### 2 MAHAI

#### 1 MAHAIA 2 URNA

1 URNA  
PDI  
51

2. URNA  
IIPEDI/PDIND  
16

#### 2. MAHAIA 2 URNA

1. URNA  
IKASLEAK  
1321+50

2. URNA  
BESTELAKO IIP/OTRO PDI  
83



## ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA

### 6 MAHAI

1 MAHAIA IKASLEAK A-Mra	2. MAHAIA IKASLEAK N-Zra	3. MAHAIA DOKTOREGO IKASLEAK	4. MAHAIA PDI A-Mra	5. MAHAIA PDI	6. MAHAIA BESTELAKO IIP/OTRO PDI
3079		200	314		461



## GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

### 3 MAHAI

#### 1 MAHAIA

#### 2. MAHAIA

#### 3. MAHAIA

URNA 1  
IKASLEAK  
2593+ 85

URNA 1  
PDI  
139

2. URNA  
BESTELAKO  
IIP 144  
ETA  
IIPDEDI (+zuzenbidea, rrl,  
zientzia eta teknologia,  
medikuntza) 9+3+3+3+1





## BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

### 4 MAHAI

#### 1 MAHAIA

PDI  
38

#### 2. MAHAIA

IKASLEAK  
2009+11

#### 3. MAHAIA

BESTELAKO IIP/OTRO  
PDI  
106

#### 4. MAHAIA

IIPEDI  
3



**MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA  
FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERIA**

**2 MAHAI/2 MESAS**

**MAHAI 1 LEIOAN**  
3 URNA/3 URNAS

**2. MAHAI DONOSTIAN**  
4 URNA /4 URNAS

1 URNA  
PDI  
2 censos  
145+11

2. URNA  
IKASLEAK  
6 censos  
2450+688+183+16  
+8+9

3. URNA  
BESTELAKO  
IIP/OTRO  
PDI  
268+38+134+  
135+10+74

1 URNA  
PDI  
13

2. URNA  
IKASLEAK  
2 censos  
481+1

3. URNA  
BESTELAKO  
IIP/OTRO  
PDI  
108+41

4. URNA  
IIPEDI  
1



**LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA**  
**RELACIONES LABORALES Y TRABAJO SOCIAL**

<b>GIZARTE LANGINTZAN/TRABAJO SOCIAL</b>			<b>LAN HARREMANAK/RELACIONES LABORALES</b>		
<b>MAHAI 1/1 MESA</b> (IIPEDIak hezkuntza f. bozkatzen du/PDIJNDP vota en educ) 3 URNA/3 URNAS			<b>MAHAI 1/1 MESA</b> (IIPEDIak gizarte eta komunikazio z.etan bozkatzen du) 3 URNA/3 URNAS		
1 URNA/1 <sup>a</sup> URNA IIP/PDI <b>10</b>	2. URNA/2 <sup>a</sup> URNA IKASLEAK ALUMNADO <b>581</b>	3. URNA/3 <sup>a</sup> URNA BESTELAKO IIP OTRO PDI <b>21</b>	1 URNA/1 <sup>a</sup> URNA IIP/PDI <b>24</b>	2. URNA/2 <sup>a</sup> URNA IKASLEAK ALUMNADO <b>639</b>	3. URNA/3 <sup>a</sup> URNA BESTELAKO IIP OTRO PDI <b>17</b>



## GIPUZKOAKO INGENIARITZA E. /E. INGENIERIA DE GIPUZKOA

EIBAR 2 MAHAI/2 MESAS				DONOSTIA MAHAI 1 /1 MESA			
1. MAHAIA/1ª MESA 2 URNA/2 URNAS		2. MAHAIA/2ª MESA 2 URNA/2 URNAS		1 URNA/1ªURNA IIP / PDI <b>67</b>	2. URNA/2ª URNA IKASLEAK ALUMNADO <b>1188</b>	3. URNA/3ª URNA BESTELAKO IIP OTRO PDI <b>97</b>	4. URNA/4ª URNA IIPEDI PDINDP <b>13</b>
BESTELAKO IIP OTRO PDI <b>20</b>	IKASLEAK ALUMNADO <b>291+41</b>	IIP PDI <b>9</b>	IIPEDI PDINDP <b>6</b>				



## ARKITEKTURA GET /ETS ARQUITECTURA

### MAHAI 1 /1 MESA 4URNA /4 URNAS

1. URNA/1<sup>a</sup> URNA  
IIP/PDI (23)

2. URNA/2<sup>a</sup> URNA  
IKASLEAK (831+10)  
ALUMNADO

3. URNA/3<sup>a</sup> URNA  
BETELAKO IIP (72)  
OTRO PDI

4. URNA/4<sup>a</sup> URNA  
IIPEDI(7)  
PDINDP



## ZUZENBIDE FAKULTATEA / FACULTAD DE DERECHO

2 MAHAI/2 MESAS

**LEIOA**  
3 MAHAI/3 MESAS

**DONOSTIA**  
3 MAHAI/3 MESAS

1. URNA/1<sup>a</sup> URNA  
IIP/PDI **19**

2. URNA/2<sup>a</sup>  
URNA  
IKASLEAK  
**599+5**  
ALUMANDO

. URNA/3<sup>a</sup> URNA  
BESTELAKO  
IIP/OTRO PDI  
**43**

1 URNA/1<sup>a</sup>  
URNA  
IIP / PDI  
**58**

2. URNA/2<sup>a</sup>  
URNA  
IKASLEAK  
ALUMANDO  
**1059+56**

3. URNA/3<sup>a</sup> URNA  
BESTELAKO IIP  
OTRO PDI  
**45**



**HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA F.  
F. DE EDUCACIÓN, FILOSOFIA Y ANTROPOLOGÍA**

**2 MAHAI/2 MESAS**

**HEFA I – 230  
3 URNA/3 URNAS**

(IIPEDIk informatikara doa/PDINDP va a Informática)

**HEFA II-254  
4 URNA/4 URNAS**

1.URNA/1ª URNA  
IKASLEAK  
ALUMNADO  
1348+56+5

2.URNA/2ª URNA  
IIP/PDI  
58

3.URNA/3ª URNA  
BESTELAKO IIP  
OTRO PDI  
99

1.URNA/1ªURNA  
IKASLEAK  
ALUMNADO  
1152+20

2.URNA/2ªURNA  
IIP/PDI  
29

3.URNA/3ªURNA  
IIPEDI  
PDINDP  
2+8

4.URNA/4ªURNA  
BESTELAKO IIP  
OTRO PDI  
49



## INFORMATIKA FAKULTATEA/F. INFORMÁTICA

2 MAHAI/2 MESAS

1. MAHAIA/1ª MESA  
2 URNA/2 URNAS

2. MAHAIA/2ª MESA  
2 URNA /2 URNAS

1. URNA/1ª URNA  
IIPEDI/PDI NO  
DOCTOR(+psikologia,  
zuzenbidea)  
(3+1+3)

2. URNA/2ª URNA  
BESTELAKO IIP/OTRO PDI  
60

1. URNA/1ª URNA  
IKASLEAK/ALUMNOS  
761+40

2. URNA/2ª URNA  
PDI/IIP  
80





**PSIKOLOGIA FAKULTATEA/F. PSICOLOGÍA**

**2 MAHAI/2 MESAS**

**1. MAHAIA /1ª MESA**  
2 URNA/2 URNAS

**2. MAHAIA/2ª MESA**  
URNA 1/ 1 URNA

1. URNA/ 1ª URNA  
IIP/PDI  
**65**

2. URNA/2ª URNA  
IKASLEAK/ALUMNADO  
**1225+28**

1. URNA/1ªURNA  
OTRO PDI/BESTELAKO IIP  
**78**



## KIMIKA FAKULTATEA/ F. DE QUIMICA

**MAHAI 1 / 1 MESA**  
**3 URNA / 3 URNAS**  
(Ez dago IIPEDirik / No hay PDINDP)

1. URNA / 1<sup>a</sup> URNA  
PDI / IIP  
**55**

2. URNA / 2<sup>a</sup> URNA  
IKASLEAK/ALUMNADO  
**376+75**

3. URNA / 3<sup>a</sup> URNA  
BETELAKO IIP / OTRO PDI  
**128**



	<b>AZP / PAS</b>
<b>ARABAKO CAMPUSA CAMPUS ARABA</b>	MAHAI 1/1 MESA <b>260</b>
<b>BIZKAIKO CAMPUSA CAMPUS BIZKAIA</b>	3 MAHAI/3 MESAS ( Leioa, Ingenieritza eta Sarriko) <b>955    148 +6    137</b>
<b>GIPUZKOAKO CAMPUSA CAMPUS GIPUZKOA</b>	MAHAI 1/ 1 MESA <b>390</b>
	<b>IKASLEAK / ALUMNADO</b>
<b>Esperientzi ikasgelak ARABA Aulas Experiencia ALAVA</b>	URNA BAT HEZKUNTZA ETA KIROL F.an (de 15:30 a 18:00) <b>169</b>
<b>Esperientzi ikasgelak BIZKAIA Aulas Experiencia BIZKAIA</b>	MAHAI 1 / 1 MESA <b>215</b> (de 9:00 a 13:30)
<b>Esperientzi ikasgelak GIPUZKOA Aulas Experiencia GIPUZKOA</b>	MAHAI 1/1MESA <b>221</b> (9:00 a 13:30)

## II. ERANSKINA

### HAUTESKUNDE EGUNAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ERABAKIA (ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK).

Hauteskunde egunean, 2020ko azaroaren 26an, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute, hurrengo berezitasunekin:

#### **Arabako Campusa**

Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientziako sekzioko (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea) langileek eta [Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Gasteizko ikas gunea](#) botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute: gehienez 2 ordu.

#### **Gipuzkoako Campusa**

Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolakoek eta [Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Donostiako ikasgunea](#) botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute; gehienez ere 2 ordu.

[Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola](#)ko Eibar sekzioko langileek botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute: gehienez 3 ordu.

#### **Bizkaiko Campusa**

Bilboko Ingeniaritza Eskolako Langileek euren lantokia Portugaleten dutenek (aurreko [Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa](#)) botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute: gehienez 2 ordu.

[Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Gurutzetako](#) ikas guneko langileek botoa ematera joateko behar duten denbora tartea izango dute: gehienez 3 ordu.

**Edozelan ere lanera sartzeko edo lanetik irteteko ordutegia bete beharko dute langileek, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako langileek salbu, langile horientzat ez baita erraza Donostiara arte joatea.**

Hauteskunde Batzorde Nagusia